

ENPRESEN konfiantza

2025EKO 3. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa


2025EKO 3. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



0 | INGURUNEA

LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2025eko hirugarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Ingurune ekonomikoa aurreko hiruhilekoan baino zertxobait positiboagoa dela erakutsi dute emaitzek.


Zehazki, enpresen % 13,9k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 47,5ek uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 38,6k, okerrera egingo duela.



*Kontuan hartu behar da laginketa 2025eko maiatzaren 5etik 12ra bitartean egin dela. Hau da, epealdi horretako azken egunean, Txinak eta AEBk aldebiko akordioa lortu zuten.


1 | FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, 2025eko bigarren hiruhilekoaren antzeko ikuspegia dute enpresek. Zehazki, galdetutako enpresen % 29k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 56,4ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 14,6k okerragoa izango dela aurreikusten du.




2 JARDUERA

JARDUERAk, ostera, 2025eko hirugarren hiruhilekoan hobera egingo du % 24,8ren iritziz, eta % 18,8ren arabera, okerrera. Lagineko gainerako % 56,4ak, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




3 ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortzen da berehala: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek; hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, emaitzek iragartzen dute eskabideek nolabaiteko igoera izango dutela eta prezioek gora egingo dutela apur bat. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun dioten % 27,5en iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 15,1en ustez, txikitu. Enpresen % 57,4ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 15,6k uste du igo egingo direla, eta % 78,2k, bere horretan jarraituko dutela.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 83,4ren arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da, eta enpresen % 16,6k uste du errendimendu handiagoa lortuko duela.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek erakusten dutenaren arabera, ikuspegia ez da aurreko hiruhilekoan bezain baikorra. Hala, jarraian ikusiko dugunez, badirudi inbertsioak portaera positiboari eusten diola.

INBERTSIO-bolumenari dagokionez, enpresen % 14,9k uste du gora egingo duela **2025eko hirugarren hiruhilekoan**. % 9,9ren iritziz, berriz, behera egingo du inbertsio-bolumenak. Hortaz, inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago galdetutako enpresen % 75,2.



7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 79,7k erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 15,3k langile-taldea handitzeko itxaropena du, eta % 5,0k guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2025EKO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak —inguruneari buruzko iritzia izan ezik— gehitu eta haztatzen baditugu, 54,6ko konfiantza-indizea lortuko dugu. Hau da, aurreko hiruhilekoko baina txikiagoa (58,0koa izan baitzen). Beraz, enpresek ikuspegi baikorragoa dute ekonomiaren bilakaerari buruz, **2025eko hirugarren hiruhilekoari** begira. Indizearen balioa 50etik gorakoa izateak jarduera hedatzen ari dela adierazten du. Gainera, balioa handiagoa da eurogunean lortutako baina —54,2ko datua lortu zen apirilean—, baita Estatuan lortutakoa baina handiagoa ere —52,5eko datua, apirilean—.

Bukatzeko, inkestan jasotako beste gai batzuen inguruko emaitzak aurkeztuko dizkizuegu jarraian; ez dira aurretik azaldutako indizearen osagai. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 25,7k uste du hobera egin duela, eta % 20,3k txarrera egin duela. % 54,1en iritzian, kanpoko salmentek bere horretan jarraitu dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZAri edo I+Gko EKIMENei bideraturiko salmenten ehunekoaren inguruan, inkestaturen % 65,3 balio minimoetan kokatzen da: Ezer ez eta % 1 artean. Bestalde, % 17,6k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 BEZEROEI KOBRATZEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 80,4ren ustez, bezeroei KOBRATZEKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 7,4ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 12,1ek soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestatuen % 80,9k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 11,6k dio hobetu egin dela, eta % 7,4k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




2025EAN ADIERAZLEAK IZAN DUEN BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA



12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiru hilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



Fitxa teknikoa eta metodologia

- EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.
- Landa-azterketa maiatzaren 5etik 12ra bitartean egin zen.